

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila****Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 3014/2019 FORU AGINDUA, urriaren 21ekoa. Honen bidez, Bizkaidatz Txikia 2019-2020 haur eta gazteen VI. literatura-sariaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira.**

Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, 7. artikuluan, lurralde historikoei eskumen eskusiboa ematen die, besteak beste, arlo hauetan: lurralde historikoaren titulartasunekoak diren eta Arte Ederrekin eta Artisautzarekin zerikusia duten artxibo, biblioteka, museo eta erakundeen arloan.

Eskumen hori betearazteko, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenen barruan, kultura diziplina guztietan bultzatu, sustatu eta hedatzeko helburua duten jardute-lerro batzuk dauzka abian. Lerroon bidez, liburutegiei dagokienez, sormen literarioa eta haren hedapena sustatu nahi dira.

Jarduera esparru horretan, Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen du literatur arloa eta, zehazki, arlo horretako sormen artistikoa bultzatzen laguntzen duten kultur ekimenak sustatzea. Horrekin lortu nahi da arlo literarioa garatzea eta sendotzea gure Lurralde Historikoan.

Horrela, literatur lehiaketa honek Bizkaiko Lurralde Historikoko gazteen artean irakurri eta idazteko zaletasuna sustatu nahi du, horregatik, lurralde honetako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako haurrei eta Bigarren Hezkuntzako gazteei dago zuzenduta.

Bizkaidatz Txikia literatura-sariak lelopean, helburu nagusizat du mutil eta neska bizkaitarren sormen literarioa bultzatzea.

Deialdi hau Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoarekin bat egingo da.

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 4. xedapen gehigarriak ezarritakoarekin bat etorritik, kultur eta/edo hezkuntzako sariak direla eta, hezkuntza, kultura, zientzia edo beste edozein motatako sarien esleipenari ezar dakioken araubide berezia ezarriko zaio, foru arau honen edukiaren arabera izan beharko dena, salbu eta, diru-laguntzen izaera berezia dela eta, horrelakorik ezin ezar dakikeen alderdietan.

Foru Agindu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Printzipio horiek jasota daude Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Azaldutakoa dela bide, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i) eta 67.1 artikulua, eta Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak emandako ahalmenak aintzat hartuta, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra. — Literatura-sariaren oinarriak eta deialdi publikoa onestea

Bizkaidatz Txikia 2019-2020 haur eta gazteen VI. literatura-sariaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira. Ondoren jasotzen da oinarrien eta deialdiaren testua.



I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK**1. oinarria. — Literatura-lehiaketaren xedea**

1. Literatura-lehiaketa honen xedea Bizkaiko hezkuntza zentruen umeen eta gazteen irakurtzeko eta idazteko zaletasuna sustatzea da.

2. Lehiaketa honetan, gaur egungo idazle batek hasitako kontakizun bati jarraipena ematen dioten literatura-kontakizunak aurkeztu ahal izango dira; beraz, hasiera horretara, haren pertsonaietara eta egoeretara egokitu behar dira kontakizunak.

Berariaz eratuko den epaimahai batek aztertuko ditu sarira aurkeztutako lanak eta proposatuko du zeintzuk diren irabazleak; sari bat eta diploma bat emango zaie irabazleoi.

3. Aurtengo deialdian, parte-hartzaileek kontakizun hauen hasierak hartu beharko dituzte abiaburutzat:

- a) Gaztelaniazko atalean, Noelia Lorenzo Pino idazlearen «¿Quieres rescatar al príncipe?» kontakizunaren hasiera.
- b) Euskarazko atalean, Rafa Ugalde Irigorri idazlearen «Haitzaren Erraietan» kontakizunaren hasiera.

4. Parte-hartzaile bakoitzak nahi duen beste lan aurkez dezake.

Parte hartzen duten pertsonak euskarazko edo gaztelaniazko kontakizunak aurkez ditzakete, eta, epaimahaiak horrela erabakitzen badu, atal bietan izan daitezke irabazle. Euskarazko kontakizunaren hasiera aukeratuz gero, kontakizunak euskaraz jarraitu behar izango du; gaztelaniazkoa aukeratuz gero, berriz, gaztelaniaz.

5. Kontakizunak gutxienez 4 orrialde luze izango dira, eta, gehienez, 5. Testuak eskuz idatziz gero, letra argia erabili behar da; ordenagailuz eginez gero, berriz, «Times» edo «Arial» letra mota erabili behar da (12 gorputza), eta ezaugarri hauek gorde behar dira: DIN A4 tamainako orrietan eta espazio bikoitza utziko da.

2. oinarria. — Pertsona onuradunak

1. Bizkaiko udalerriren batean, edozeinetan, kokatutako ikastetxeren batean ikasten ari diren haur eta gazteek har dezakete parte lehiaketa honetan; horretarako, jatorrizko eta banakako lanak aurkeztu beharko dituzte, euskaraz zein gaztelaniaz, kategorია hauetako batean.

- a) Haur kategoría. Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. ikasturteetako ikasleak.
- b) Gazte kategoría. Bigarren Hezkuntzako 1, 2, 3 eta 4. ikasturteetako ikasleak.

2. Lehiaketan parte hartzean lehiaketaren oinarriak oso-osorik onartzen dira.

3. Eskatutako betekizunak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean egiaztatu behar dira eta deialdiaren indarraldi osoan bete behar dira.

Ezin izango dira aurkeztu aurtengo Bizkaidatz Txikia 2019/2020 VI. Literatur lehiaketara honen aurre-aurreko edizioan epaimahaiak haur edo gazteen kategorietako batean, edozeinetan, gaztelaniazko zein euskarazko modalitatean saritutako haur eta gazteak.

II. TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA**3. oinarria. — Ezarri beharreko arautegia**

Ebazpen honetan aurrez ikusita ez dauden gainerako kasuetan honako hauek aplikatuko dira: Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, foru arau hori garatzeko araudia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea eta bere izaeragatik aplikatzekoa izan daitekeen beste edozein xedapen arau-emaila.

**III. TITULUA
PROZEDURA****4. oinarria.— Eskabideak aurkezteko tokia eta epea**

1. Eskabideak eskuz edo postaz aurkeztu ahal izango dira, Laguntza, Erregistro eta herritarrenganako laguntza bideratzeko bulegoan (Diputazio kalea 7, 48008 Bilbo), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako eran.

Horrez gainera, aukera egongo da eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez aurkezteko <http://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

2. Haur edo gaztearen guraso-ahalgoa edo legezko ordezkariak dutenek sinatuta egon beharko dute eskabideak. Nolanahi ere, kontakizunaren egilea den haur edo gaztearen ama, aita edo legezko ordezkaria joko da eskatzailetzat.

3. Eskabideak aurkezteko epea honako xedapen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasi eta 2020ko otsailaren 13ra arte, osteguna, izango da, egun bi horiek barne.

5. oinarria.— Eskabideekin batera aurkeztu beharreko agiriak

1. Aurrez aurreko eta posta arrunta bidez eginiko eskabideak foru agindu honen I. inprimaki gisa erantsitako eredu ofizialean aurkeztu behar dira (BI-2 eredu), hurrengo zenbakietan adierazitako agiriarekin eta eskatzaileak edo haren legezko ordezkariak izenpetuta (<http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak> web orrian eskuragarri dago inprimakia).

2. Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkezten diren eskabideei dagokienez, bete eta aurkezteko dauden eredu espezifikokoak erabili beharko dira (<http://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>).

3. Kasu bietan, eskabidearekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

— Parte-hartzaileek idatzitako kontakizunaren lau kopia, lana aurrez aurre aurkeztuz gero. Eskabideak egoitza elektronikoaren bidez aurkezten badira, kopia bakarra eranstea nahikoa izango da.

— Obraren aleak ez dira sinatu behar; zenbakia jarrita izango dute orrialde guztietan, eta kontakizunaren izenburua adierazita izan behar dute; ez, ordea, egilearen identifikazio-daturik eta orrialde batean bakarrik idatzita egongo dira.

4. Edozein kasutan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak egiaztatu egingo ditu eskatzailearen identitateari buruzko datuak, eta, era berean, adingabearenak.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.

6. oinarria.— Eskabideak zuzentzea edo hobetzea

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, orduan pertsona interesdunari errekerimendua egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela adieraziko zaio.

2. Edonola ere, Kultura Ondarearen Zerbitzuak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

**7. oinarria. — Kontakizunak baloratzeko irizpideak**

1. Deialdi honetarako izendatuko den epaimahai kalifikatzaileak bakarrik aztertuko ditu epearen barruan aurkeztutako eskabideak, eta haren iritziz puntu gehien lortu dutenei emango dizkie sariak. Gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira, eta puntuok erabakitzeke irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Proposatutako kontakizunari emandako jarraipena eta harekiko batasuna: 4 puntu, gehienez.
- Kalitate literarioa: 3 puntu, gehienez.
- Istorioaren garapenean izandako sormena: 3 puntu, gehienez.

2. Saria eman gabe geratu ahal izango da, baldin eta, epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako kontakizunak ez badituzte betetzen sarituak izateko ezarritako baldintzak, edo balorazioan ez bada puntuazio nahikorik eskuratu.

3. Epaimahai kalifikatzaileak ahalmena du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zaintzen ez duten kontakizunak kanpoan uzteko eta baztertzeko, otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legeak, ekainaren 20ko 4/2018 Foru Aginduak eta indarrean dauden gainerako legezko xedapenek ezarritakoarekin bat.

8. oinarria. — Aholkularitza

Foru Agindu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak. Horretarako, helbide hau dago web orrian:

<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileOndarea>

9. oinarria. — Epaimahai kalifikatzailea

1. Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Foru Aginduaren 44. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, kide hauek osatuko duten epaimahai kalifikatzaile hau osatu da:

- Epaimahaiburua: Andoni Iturbe Amorebieta jauna, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura zuzendari nagusia.
- Ordezko epaimahaiburua: Xabier Arauzo Uriarte jauna, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara zuzendari nagusia.
- Epaimahaikideak gazteleraz:
 - Noelia Lorenzo Pino andrea, idazlea.
 - Begoña Elorrieta Puente andrea, idazlea.
 - Andoni Abenójar Martínez de Eulate jauna, idazlea.
- Epaimahikideak euskeraz:
 - Rafa Ugalde Irigorri jauna, idazlea.
 - Marta Goikoetxea Nagore andrea, kazetaria.
 - Juan Ramón Madariaga Abaitua jauna, idazlea.
- Ordezko mahaikideak:
 - Idoia Barrondo Etxebeste andrea, idazlea.
 - David Tijero Osorio jauna, idazlea.
- Idazkaria titularra, botorik gabe: Teresa Díez Penas andrea, foru funtzionarioa.
- Ordezko idazkaria, botorik gabe: Nahikari Gil Elorduy andrea, foru funtzionarioa.

2. Epaimahai kalifikatzaileak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, sariak emateko irizpideak kontuan hartuta, hark behin betiko ebazpena eman dezan.

**10. oinarria. — Ebazpena**

1. Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienez ere 4 hilabeteko epea dago, kontakizunak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak emango du ebazpena, Epaimahai Kalifikatzaileak proposamena eginda.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen adierazirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, ebazpen adierazia geroago ere eman ahal izango da.

2. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua posta ziurtatu bidez jakinaraziko zaie deialdi honetarako eskabidea aurkeztu duten pertsoneri, salbu eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez aurkeztu dutenei, egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidez jakinaraziko baitzaie.

Bertan, berriaz azalduko da foru agindu horrek administrazio bidea amaitzen duela eta haren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaiola Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari, foru agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete (1) igaro baino lehen, edo Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daitekeela EAEko Auzitegi Nagusian, era berean zenbatutako bi (2) hilabete pasatu baino lehen.

3. Saridunen zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, iragarki baten bidez.

11. oinarria. — Sariak

1. Irabazleei sari hauek banatuko zaizkie:

a) Gaztelaniazko modalitatea:

- Haur kategoriako lehen saria: tablet bat eta diploma.
- Haur kategoriako bigarren saria: liburu elektronikoa bat eta diploma.
- Gazte kategoriako lehen saria: tablet bat eta diploma.
- Gazte kategoriako bigarren saria: liburu elektronikoa bat eta diploma.

b) Euskarazko modalitatea:

- Haur kategoriako lehen saria: tablet bat eta diploma.
- Haur kategoriako bigarren saria: liburu elektronikoa bat eta diploma.
- Gazte kategoriako lehen saria: tablet bat eta diploma.
- Gazte kategoriako bigarren saria: liburu elektronikoa bat eta diploma.

Gainera, sarituta gertatu diren haur eta gazteen ikastetxeek material didaktikorako opari-txartel bat jasoko dute.

Saritutako lanak sarirako prestatutako edizio batean argitaratuko egingo dira.

IV. TITULUA**SARIAREN KUDEAKETA****12. oinarria. — Sariaren banaketa**

Sariak irabazleei emango zaizkie horretarako bereziki antolatutako ekitaldi ofizial batean.

13. oinarria. — Jabetza intelektuala

Saria banatzen denetik aurrera, hurrengo bost urteetan Bizkaiko Foru Aldundiak bakarrik izango ditu saritutako lanak erreproduzitu, banatu eta saltzeko eskubideak, eta sariarekiko ez du beste ordainketarik egin beharko.

14. oinarria. — Saridunen betebeharrak

1. Saridunek eurek joan behar dute sariak banatzeko ekitaldira, horretarako adierazten zaien toki, egun eta orduan, eta ezingo balu joan, berriz, ordezkari bat bidali beharko luke. Gainera, saria jaso duen kontakizuna euskarri informatikoa eman behar dute.



2. Editatutako material guztietan eta diru-laguntza jaso ondoren egindako jendaurreko agerpen guztietan Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerraraztea. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudiak ezarritako elementuak baliatuko dira nahitaez, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz:

«Ekintza honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du» edo «Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad patrocinada por la Diputación Foral de Bizkaia».

Euskara hutsean garatutako proiektuetan, euskararen txantxangorriaren irudia sartu beharko da ere.

3. Nolanahi ere, saridunak beti bete beharko ditu Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan zehazten diren betebeharrak, bai eta foru arau hori garatzeko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuan zehazten diren gainerakoak ere.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapen Bakarra.— Indarrean jartzea

Foru Agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko urriaren 21ean.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA



Servicio de Patrimonio Cultural Kultura Ondarearen Zerbitzua BIZKAIDATZ TXIKIA. VI LITERATURA SARIA (2019-2020) VI PREMIO LITERARIO BIZKAIDATZ TXIKIA	I. Inprimakia/ <i>Formulario I</i> <i>Literatura sarian parte hartzeko eskabidea</i> <i>Solicitud para participar en la convocatoria del premio literario</i>	BI 2
		Data / Fecha
	BFaren 3014/2019 FA OF de DFB 3014/2019	Erregistro zk/ Nº de registro



KONTAKIZUNAREN EGILEAREN DATUAK / <i>DATOS PERSONA AUTORA DEL RELATO</i>					
Deiturak eta izena / <i>Apellidos y nombre</i>					
Sexua / <i>Sexo</i> <input type="checkbox"/> Gizona / <i>Hombre</i> <input type="checkbox"/> Emakumea / <i>Mujer</i>		Helbidea / <i>Domicilio</i>			
Etxe zk. Nº casa	Eskailera Escalera	Solairua Piso	Atea Puerta	Udalerría / <i>Municipio</i>	P. K. / <i>C. P.</i>
Lurraldea / <i>Territorio</i>			Adina / <i>Edad</i>		
IKASTETXEAREN DATUAK / <i>DATOS DEL CENTRO ESCOLAR</i>					
Ikasketak egiten diren ikastetxea / <i>Centro escolar en el que cursa estudios</i>					
Udalerría / <i>Municipio</i>		Egiten ari den maila <i>Curso que está realizando</i>		Irakaslearen izena / <i>Nombre del profesor/a</i>	

ESKATZAILEA – ADINGABEAREN AITAREN, AMAREN EDO LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK <i>SOLICITANTE - DATOS PADRE, MADRE O REPRESENTANTE LEGAL DE LA PERSONA MENOR DE EDAD</i>		
IFZ / <i>NIF</i>	Deiturak eta izena / <i>Apellidos y nombre</i>	
Egilearekin duen harremana / <i>Relación con la persona autora</i>		
Telefonoa / <i>Teléfono</i>	Sakelakoa / <i>Móvil</i>	Posta elektronikoa / <i>Correo electrónico</i>

KONTAKIZUNAREN DATUAK / <i>DATOS DEL RELATO</i>	
Eskabide-orri bat bete aurkeztutako kontakizun bakoitzeko / <i>Rellenar una hoja-solicitud por cada relato presentado.</i>	
Kontakizunaren Izenburua / <i>Título del relato</i>	
Modalitatea / <i>Modalidad</i> <input type="checkbox"/> Euskara <input type="checkbox"/> Castellano	Kategoría / <i>Categoría</i> <input type="checkbox"/> HAUR kategoría. Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. ikasturteetako ikasleak, Categoría INFANTIL: alumnado de 3º, 4º, 5º, y 6º de Educación Primaria..I <input type="checkbox"/> GAZTE kategoría. Bigarren Hezkuntzako 1, 2, 3 eta 4. ikasturteetako ikasleak Categoría JUVENIL: alumnado de 1º, 2º, 3º y 4º de Educación Secundaria.

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIO OROKORRA / <i>DOCUMENTACIÓN GENERAL ADJUNTADA</i> (Foru Aginduaren 5. oinarria / <i>Base 5 de la Orden Foral</i>)	
<input type="checkbox"/> Idatzizko kontakizunaren lau kopia. / <i>Cuatro copias del relato escrito.</i>	

OHARRA / *NOTA* Beharrezkoa da 2. orrialdean sinatzea / *Obligatorio firmar en la 2ª página*



--	--	--

ONARTZEKO SINADURA ETA BALDINTZAK / FIRMA Y CONDICIONES DE ACEPTACIÓN

Honako honen bidez aitortzen dut lan hau inon azaldu gabea dela eta ez dudala beste inongo lehiaketa, sariketa edo deialdira aurkeztu.	<i>Declaro que el trabajo es inédito, no habiendo sido presentado en ningún otro concurso, certamen o convocatoria.</i>
Eskatzaileak adierazten du BIZKAIDATZ TXIKIA haur eta gazteen literatura sarian parte hartu nahi duela, aurkeztatuko kontakizunarekin.	<i>La persona solicitante expresa que desea participar en la convocatoria del Premio literario infantil y juvenil BIZKAIDATZ TXIKIA, con el relato presentado por la autora del mismo.</i>
Nolanahi ere, kontakizunaren egilea den haurraren edo gaztearen ama, aita edo legezko ordezkaria joko da eskatzailetzat.	<i>Se considera persona solicitante, en todo caso, la madre, el padre o representante legal del niño, niña o joven autor del relato.</i>

Bilbo,ko(a)ren a

Bilbao, a de de

Sinadura/Firma

Aitaren, amaren edo legezko ordezkariarena
Padre, madre o representante legal



DATUAK BABESTEKO INFORMAZIOA (DATU PERTSONALEN BABESTEARI BURUZKO 2016/679 ERREGELAMENDUA [EB])/ 3/2018 L. O. DATU PERTSONALEN BABESARI ETA ESKUBIDE DIGITALEN BERMEA) INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS (REGLAMENTO (UE) 2016/679 DE PROTECCIÓN DE DATOS) y LOPD Y GARANTÍA DE DERECHOS DIGITALES 3/2018	
Tratamenduaren arduraduna eta kontaktatzeko	Responsable del tratamiento y contacto
Kultura Zuzendaritza Nagusia Rekalde zumarkalea 30 2., 48009 Bilbao	Dirección General de Cultura C/ Alameda Recalde, 30 2º, 48009 Bilbao
Tratamenduaren helburua	Finalidad del tratamiento
Tratamendu honen helburua da, interesdunek foru agindu hau jarraituz aurkeztutako eskaerak kudeatzea.	<i>La finalidad del tratamiento es gestionar las solicitudes presentadas al amparo de esta Orden Foral.</i>
Interesdunaren eskubideak	Derechos de la persona interesada
Interesdunak tratamenduaren arduradunaren aurrean balia ditzake bere datuetan sartu, datuok zuzendu, aurkaratu, ezabatu edo haien tratamendua mugatzeko eskubidea, eta erabaki indibidual automatizatuen helburu ez izan; horretarako, idazki bat Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalari bidalita, helbide honetara: <ul style="list-style-type: none">• Bizkaiko Foru Aldundiaren Erregistro Nagusia. (Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Bulegoa, Laguntza: Diputazio kalea 7-48009 Bilbo)• Bizkaiko Foru Aldundiaren herritarrei laguntzeko eskualde-bulegoak• Bizkaiko Foru Aldundiko sailetako erregistro nagusiak• 39/2015 Legean aurreikusitako tokiak Horrez gainera, interesdunak eskubidea du kontrol-agintaritzari erreklamazioa jartzeko (hau da, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari).	La persona interesada puede ejercer ante el Responsable de tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, oposición, supresión, limitación del tratamiento y no ser objeto de decisiones individuales automatizadas, mediante escrito dirigido a la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos en: <ul style="list-style-type: none">• Registro Central de la Diputación Foral de Bizkaia (Oficina de Registro y Atención Ciudadana Laguntza: C/ Diputación 7- 48008 Bilbao)• Oficinas Comarcales de Atención Ciudadana de la Diputación Foral de Bizkaia• Registros Generales Departamentales de la Diputación Foral de Bizkaia• Lugares previstos en la Ley 39/2015 La persona interesada dispone igualmente del derecho a reclamar ante la autoridad de control pertinente (Agencia Vasca de Protección de Datos).
Datuak Babesteko ordezkaria kontaktu datuak	Contacto de la persona delegada de Protección de Datos
Lege Aholkularitza, Informazio Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalaren Burua (Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioarako eta Erakunde	Jefatura de la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos (Departamento de Administración Pública y Relaciones

**DATUAK BABESTEKO INFORMAZIOA**

(DATU PERTSONALEN BABESTEARI BURUZKO 2016/679 ERREGELAMENDUA [EB])/ 3/2018 L. O. DATU PERTSONALEN BABESARI ETA ESKUBIDE DIGITALEN BERMEA)

INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

(REGLAMENTO (UE) 2016/679 DE PROTECCIÓN DE DATOS) y LOPD Y GARANTÍA DE DERECHOS DIGITALES 3/2018

Harremanetarako Saila). Kale Nagusia, 25 - 48009 Bilbo	Institucionales). Gran Vía, 25 - 48009 Bilbao
Tratamenduaren legitimazioa	Legitimación del tratamiento
27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-Elkarte osorako Erakundeen eta bertako Kondaira lurraldeetako foruzko ihardutze erakundeen arteko harremani buruzkoa. 7 a) 12 artikulua.	Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos forales de sus Territorios Históricos. Artículo 7 a) 12.
Datuen hartzaileak	Personas destinatarias de los datos
Datu pertsonalak ez zaie hirugarrenei lagako.	<i>Los datos personales no serán cedidos a terceros.</i>
Datuak gordetzeko epea	Conservación de los datos
Datu pertsonalak tratatzeko beharrezko denbora.	<i>Tiempo necesario para los fines del tratamiento de los datos personales.</i>
Interesdunen kategorien deskribapena	Descripción de las categorías de personas interesadas
Eskatzaileak eta, hala badagokio, legezko ordezkariak.	Solicitantes y representantes legales, en su caso.
Segurtasuneko neurri teknikoak eta antolakuntzako neurrien deskribapen orokorra	Descripción general de las medidas técnicas y organizativas de seguridad
Informazio-sistemak kategorizatzea eta segurtasuneko neurriak ezartzea, Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duen 3/2010 Errege Dekretuak xedatutakoari jarraiki.	Categorización de sistemas de información y aplicación de medidas de seguridad de acuerdo al Real Decreto 3/2010, del Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica.